



BERRIAk irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere —espazioak barne— baino luzeago izan behar, eta **BERRIAk** mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Berria, Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.info.

Aisialdia izan da azken garaian gizakiaren konkista handienetakoa. Lan tresna soila, ekoizkortasunaren zerbitzura, ekoizpen mailaren arabera baloratua izatetik norbere denboraren jabe, aisialdiaren kudeatzaile, aske izatera. Aurrerapauso ukaezina. Askatasun horrek, ordea, beste zenbait erronka azalera dugu ezinbestean. Eta erronka horiei aurre egiteko neurriak gure garaian ikur bilakatu dira.

Hezitzailea dio beheko erroterluak, baina egia esan ez dakit zenbatek esango lukeen egiten dudana heziketa denik. «Hezkuntza formalean, eskolan bai heziketa!»; «Familiak behar luke heziketa gune nagusi eta ezinbesteko!»... ados. Gaur egun bizi dugun gizartean, berriz, us-teak erdia ustel. Eskolatik familia eta familiaratik eskolara, eduki kognitiboaz gainerakoan ardua batzuk besteei exijituz. Astialdia, inoiz baino beharrezkoagoa. Prebentzio lanetik, gazteok gazteonganako gertutasunetik eta boluntariotzatik erronkei eta minbiziei aurre egiten saiatzen dena. Utopiara gerturatuz, amets eta ilusioak eraikiz, minbizia bizimin bilatuz.

Badira 30 urte astialdiaren asmakizuna, metodologia, pedagogia Euskal Herrian errotzen hasi zenetik parrokia eta apaiz gazteen eskutik. 30 urteko lan eskerga ehunka talde eta astialdi eskolena, milaka begiraleena, guraso eta gazteena. Inoiz baino gaurkotasun handiagoa duenean, Euskal Herrian astialdian gabiltzanok elkartu, elkarrengandik ikasi, esperientziak trukatu, sare lana bideratu eta era autokritiko batean astialdiaren inguruan hausnartzeko leihoa zabaltzen ari gara. Tipi-Topa Astialdi Bil-tzarra antolatzen gabiltza. Astialdiari behar eta merezi duen balioa eman diezaiogun, duen garrantzia plazaratu dezagun. Boluntario edo sol-datapeko moduan, astialdian gabiltzanok heziketan profesionalak baikara!

Borja Ruiz. Hezitzailea, Astialdi Foroa eta Bizi Alai Taldearen izenean.

Bizimin

Aio! Eta kasurik ez. Akordatuko al da nitaz? Ez al nau ezagutu? Oharkabean iragan da aldamenetik. Begira-begira antzeman dizkiot belarriko entzungailuak. Ingurunetik bakartu, erreallitatetik ihes egiteko dio zenbaitek, musikan blai, gustuko duena egiten bestela. Aspertu da antza. Poltsikotik iPod koloretsu eta garesti horietako bat atera eta kanta pasa. Gailu berria iragarri dute telebistan, zaharkitua zokoratu eta Gabonetarako berria eskatzeko garaia!

«Gaurko gazteriarren minbizia agerian», hala dio norberekeria, kontsumismoa eta berehalako atseginaren monopolioa gazteei leporatzen dienak. Ukaezina minbizion kaltea... baina gazteena soilik? Ez ote dira ikasitakoak hauek denak? Gizartearen minbiziak alegia...